

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

BERDINTASUN, EUSKARA ETA GOBERNANTZA SAILA

Gobernantza Zuzendaritzaren uztailaren 31ko 4327/2025 Ebazpena, Arabako Foru Aldundiko sailek zenbait elkarte eta erakunderekin izenpetutako lankidetza hitzarmenen laburpenak argitaratzeko agintzen duena

Arabako Foru Aldundiko sailek Berdintasun, Euskara eta Gobernantza Saileko Idazkaritza Teknikoko eta Herritarrak Atenditzeko Zerbitzuari zenbait lankidetza hitzarmenen kopiak helarazi dizkiote, behar bezala izenpetuta.

Kontuan hartu da horretarako zer xedatzen duten honako hauek: Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeak 47. artikuluan eta hurrengoetan; Arabako Foru Aldundiaren Gobernuari, Antolaketari eta Araubide Juridikoari buruzko martxoaren 15eko 10/2023 Foru Arauak 51. artikuluan gai horri buruz, eta Diputatuen Kontseiluaren maiatzaren 11ko 129/1993, urriaren 29ko 95/1996 eta maiatzaren 27ko 53/1997 foru dekretuek.

Kontuan hartuta aipatutako lege manuak eta aplikatu beharreko gainerakoak, eta Arabako Foru Aldundiaren Gobernuari, Antolaketari eta Araubide Juridikoari buruzko martxoaren 15eko 10/2023 Foru Arauaren 65. artikuluan eta Diputatuen Kontseiluaren urriaren 29ko 95/1996 Foru Dekretuaren hirugarren apartatuaren arabera dagozkidan eskumenak baliatuz, hau

EBAZTEN DUT

Agintzea ALHAOn argitaratu daitezela lankidetza hitzarmen hauek:

Izenpetze eguna: 2024ko abenduaren 9a

Izenpetu duten organoak:

- Alde batetik: Gorka Urtaran Agirre, Gizarte Politiken Saileko foru diputatua eta Arabako Foru Aldundiko Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko Administrazio Kontseiluko lehendakaria.
- Bestetik: María Blanca Bastida Torres, HIESaren aurkako Arabako Herritarren Batzordeko lehendakaria.

Hitzarmenaren xedea: 2024ko abenduaren 9an sinatutako lankidetza hitzarmena, gizarteak baztertuta dauden pertsonentzako «Besarkada Etxea» zerbitzua kudeatzeko.

2024ko finantzaketa: 846.346,54 euro.

2025eko finantzaketa: 844.693,23 euro.

Indarraldia: 2025eko abenduaren 31ra arte.

Luzapena: gehienez, bi urtez.

Izenpetze eguna: 2024ko abenduaren 20a

Izenpetu duten organoak:

- Alde batetik: Gorka Urtaran Agirre, Gizarte Politiken Saileko foru diputatua eta Arabako Foru Aldundiko Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko Administrazio Kontseiluko lehendakaria.
- Bestetik: Jesús Cantero Martínez, Espainiako Gurutze Gorriaren Arabako Batzarraren lehendakaria.

Hitzarmenaren xedea: Etxean Bai programa garatzeko 2024ko abenduaren 20an sinatutako lankidetza hitzarmena luzatzea.

2023ko finantzaketa: 104.862,14 euro.

2024ko finantzaketa: 186.013,81 euro.

2025eko finantzaketa: 135.336,10 euro.

Indarraldia: 2025eko abuztuaren 31ra arte.

Luzapena: ez da jasotzen.

Izenpetze eguna: 2024ko abenduaren 20a

Izenpetu duten organoak:

- Alde batetik: Gorka Urtaran Agirre, Gizarte Politiken Saileko foru diputatua eta Arabako Foru Aldundiko Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko Administrazio Kontseiluko lehendakaria.
- Bestetik: Jesús Cantero Martínez, Espainiako Gurutze Gorriaren Arabako Batzordeko lehendakaria.

Hitzarmenaren xedea: 2024 abenduaren 20an sinatutako lankidetza hitzarmena, garraio egokituaren zerbitzua garatzeko dena.

2024ko finantzaketa: 840.656,53 euro.

2025eko finantzaketa: 863.015,85 euro.

Indarraldia: 2025eko abenduaren 31ra arte.

Luzapena: gehienez, bi urtez.

Izenpetze eguna: 2025eko martxoaren 11

Izenpetu duten organoak:

- Alde batetik: Gorka Urtaran Agirre, Gizarte Politiken Saileko foru diputatua eta Arabako Foru Aldundiko Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko Administrazio Kontseiluko lehendakaria.
- Bestetik: Jesús Cantero Martínez, Espainiako Gurutze Gorriaren Arabako Batzordeko lehendakaria.

Hitzarmenaren xedea: aldatzea 2025eko martxoaren 11n sinatutako lankidetza hitzarmena, garraio egokituaren zerbitzua garatzeko dena.

2024ko finantzaketa: 840.656,53 euro.

2025eko finantzaketa: 871.110,35 euro.

Indarraldia: 2025eko abenduaren 31ra arte.

Luzapena: gehienez, bi urtez.

Izenpetze eguna: 2025eko ekainaren 5a

Izenpetu duten organoak:

- Alde batetik: Gorka Urtaran Agirre, Gizarte Politiken Saileko foru diputatua eta Arabako Foru Aldundiko Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko Administrazio Kontseiluko lehendakaria.
- Bestetik: Isabel Pérez Pons de la Villa, Arabako Nuevo Futuro elkarteko lehendakaria.

Hitzarmenaren xedea: aldatzea jokabide arazoak dituzten adingabeentzako egoitza bidezko harrera programa esperimentalak kudeatzeko lankidetzak hitzarmena, 2025eko ekainaren 5ean izenpetua.

2024ko finantzaketa: 1.596.299,53 euro.

2025eko finantzaketa: 1.740.109,52 euro.

Indarraldia: 2025eko abenduaren 31ra arte.

Luzapena: gehienez, bi urtez.

Izenpetze eguna: 2025eko ekainaren 10a

Izenpetu duten organoak:

- Alde batetik: Jon Nogales Prieto, Mugikortasun Jasangarriaren eta Bide Azpiegituren Saileko foru diputatua.
- Bestetik: Maider Etxebarria García, Gasteizko Udaleko alkate-lehendakaria.

Hitzarmenaren xedea: Arabako Foru Aldundiaren eta Vitoria-Gasteizko Udalaren arteko hitzarmena, lehentasunezko intereseko sareko N-240 errepideko zerbitzu bidetik Arakako zentro militarera doan XI zk.ko CIR-era sartzeko bidearen titulartasuna eskualdatzeko, Vitoria-Gasteizko udalerriko hiri bide bihurtzea.

Indarraldia: mugagabea.

Izenpetze eguna: 2025eko ekainaren 16a

Izenpetu duten organoak:

- Alde batetik: Gorka Urtaran Agirre, Gizarte Politiken Saileko foru diputatua eta Arabako Foru Aldundiko Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko Administrazio Kontseiluko lehendakaria.
- Bestetik: Ibernalo Basterra Txasko, Kanpezuko Udaleko alkate-lehendakaria.

Hitzarmenaren xedea: etxebizitza komunitarioa kudeatu eta mantentzeko 2025eko ekainaren 16an sinatutako lankidetzak hitzarmena.

Finantzaketa: 323.319,58 euro.

Indarraldia: 2025eko abenduaren 31ra arte.

Luzapena: ez da jasotzen.

Izenpetze eguna: 2025eko ekainaren 19a

Izenpetu duten organoak:

- Alde batetik: Gorka Urtaran Agirre, Gizarte Politiken Saileko foru diputatua eta Arabako Foru Aldundiko Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko Administrazio Kontseiluko lehendakaria.
- Jesús M^a Gutiérrez Jodra, JEIKI Fundazioko lehendakaria.

Hitzarmenaren xedea: substantziekiko adikzioa edo/eta bestelako adikzio arazoak dituzten pertsonen laguntzeko eta gizarteratzeko jarduerak garatzea, 2025eko ekainaren 19an izenpetua.

Finantzaketa: 107.902,13 euro.

Indarraldia: 2025eko abenduaren 31ra arte.

Luzapena: ez da jasotzen.

Izenpetze eguna: 2025eko ekainaren 21a

Izenpetu duten organoak:

- Alde batetik: Gorka Urtaran Agirre, Gizarte Politiken Saileko foru diputatua eta Arabako Foru Aldundiko Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko Administrazio Kontseiluko lehendakaria.
- Bestetik: Lourdes Carvajal Grimal, AEMAR Esklerosi Anizkoitza dutenen Arabako Elkarteko lehendakaria.

Hitzarmenaren xedea: elkartearen jarduerak gauzatzeko lankidetzaren hitzarmena, 2025eko ekainaren 21ean izenpetua.

Finantzaketa: 139.683,00 euro.

Indarraldia: 2025eko abenduaren 31ra arte.

Luzapena: ez da jasotzen.

Izenpetze eguna: 2025eko uztailaren 1a

Izenpetu duten organoak:

- Alde batetik: Gorka Urtaran Agirre, Gizarte Politiken Saileko foru diputatua eta Arabako Foru Aldundiko Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko Administrazio Kontseiluko lehendakaria.
- Bestetik: Consuelo Auzmendi Jiménez, Asparreneko Udaleko alkateak.

Hitzarmenaren xedea: etxebizitza komunitarioa kudeatu eta mantentzeko 2025eko uztailaren 1ean izenpetutako lankidetzaren hitzarmena.

Finantzaketa: 243.619,08 euro.

Indarraldia: 2025eko abenduaren 31ra arte.

Luzapena: ez da jasotzen.

Izenpetze eguna: 2025eko uztailaren 1a

Izenpetu duten organoak:

Alde batetik: Cristina González Calvar, Arabako Foru Aldundiko Enplegu, Merkataritza, Turismo eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatua.

Bestetik: Selene Díaz Gaviña, APYMCA Amurrioko Merkataritxiki eta Ertainen Elkarteko lehendakaria.

Hitzarmenaren xedea: Arabako Foru Aldundiko Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Sailaren eta IZAN AMURRIOKO Tokiko Merkataritza Ertain eta Txikien Elkartearen arteko harremanak formalizatzea, modu osagarrian egin ditzaten beren helburuak betetzeko dagozkien ekintzak.

Alderdien ekarpenak eta konpromisoak: Arabako Foru Aldundiak 31.714,00 euroko dirulaguntza emango dio IZAN AMURRIO elkarteari, Arabako Foru Aldundiaren 2025eko ekitaldirako gastu aurrekontuaren kontura.

Indarraldia: izenpetu ondorengo egunetik aurrera eta izenpetzen den urteak dirauen bitartean.

Luzapena: ez da jasotzen.

Izenpetze eguna: 2025eko uztailaren 2a

Izenpetu duten organoak:

— Alde batetik: Gorka Urtaran Agirre, Gizarte Politiken Saileko foru diputatua eta Arabako Foru Aldundiko Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeko Administrazio Kontseiluko lehendakaria.

— Bestetik: José Ramón Molinuevo Laña, Amurrioko Udaleko alkate-lehendakaria.

Hitzarmenaren xedea: etxebizitza komunitarioa kudeatu eta mantentzeko 2025eko uztailaren 2an izenpetutako lankidetzak hitzarmena.

Finantzaketa: 245.718,00 euro.

Indarraldia: 2025eko abenduaren 31ra arte.

Luzapena: ez da jasotzen.

Izenpetze eguna: 2025eko uztailaren 2a

Izenpetu duten organoak:

— Alde batetik: Cristina González Calvar, Arabako Foru Aldundiko Enplegu, Merkataritza, Turismo eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatua.

— Bestetik: Rosa Isabel García Blanco, Arabako Errioxako Ardoaren Ibilbidea - Turismoa eta Ekonomia Sustatzeko Elkartearen lehendakaria.

Hitzarmenaren xedea: Arabako Foru Aldundiko Enplegu, Merkataritza, Turismo eta Foru Administrazioaren Sailaren eta Arabako Errioxako Ardoaren Ibilbidea – Arabako Turismoa eta Ekonomia sustatzeko Elkartearen arteko harremanak formalizatzea, modu osagarrian egin ditzaten beren helburuak betetzeko dagozkien ekintzak.

Alderdien ekarpenak eta konpromisoak: Arabako Foru Aldundiak 145.890,00 euroko dirulaguntza emango dio Arabako Errioxako Ardoaren Ibilbidea – Arabako Turismoa eta Ekonomia sustatzeko Elkarteari, Arabako Foru Aldundiaren 2025eko ekitaldirako gastu aurrekontuaren kontura.

Indarraldia: izenpetu ondorengo egunetik aurrera eta izenpetzen den urteak dirauen bitartean.

Luzapena: ez da jasotzen.

Izenpetze eguna: 2025eko uztailaren 2a

Izenpetu duten organoak:

Alde batetik: Cristina González Calvar, Arabako Foru Aldundiko Enplegu, Merkataritza, Turismo eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatua.

Bestetik: Gregorio Rojo García, Arabako Merkataritza eta Industria Ganbera Ofizialeko lehendakaria.

Hitzarmenaren xedea: Arabako Foru Aldundiaren (Enplegu, Merkataritza, Turismo eta Foru Administrazioaren Saila) eta Arabako Merkataritza eta Industria Ganbera Ofizialaren lankidetzara arautuko duten baldintzak ezartzea, erakunde bakoitzari modu osagarrian dagozkion eta erakunde bakoitzaren xedek lortzera bideratuta dauden jarduerak optimizatzeko.

Alderdien ekarpenak eta konpromisoak: Arabako Foru Aldundiak Arabako Merkataritza eta Industria Ganbera Ofizialari 22.000,00 euroko dirulaguntza ematea Arabako Merkataritza Eskola programarako, Arabako Foru Aldundiaren 2025eko ekitaldirako gastu aurrekontuaren kontura.

Indarraldia: izenpetu ondorengo egunetik aurrera eta izenpetzen den urteak dirauen bitartean.

Luzapena: ez da jasotzen.

Izenpetze eguna: 2025eko uztailaren 7a

Izenpetu duten organoak:

Alde batetik: Cristina González Calvar, Arabako Foru Aldundiko Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatua.

Bestetik: Iñaki Vivanco Ibañez jauna, APILL Laudioko Merkataritza eta Industrialari Txikien Elkarteko lehendakaria.

Hitzarmenaren xedea: Arabako Foru Aldundiko Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Sailaren eta APILL Laudioko Merkataritza eta Industrialari Txikien Elkartearen arteko harremanak formalizatzea, bakoitzari modu osagarrian dagozkion eta bakoitzaren helburuak lortzera bideratuta dauden ekintzak optimizatzeko.

Alderdien ekarpenak eta konpromisoak: Arabako Foru Aldundiaren aldetik, APILL - Laudioko Merkataritza eta Industrialari Txikien Elkarteari 36.790,00 euroko dirulaguntza ematea Arabako Foru Aldundiaren 2025eko ekitaldirako gastu aurrekontuaren kontura.

Indarraldia: sinatu ondorengo egunetik aurrera eta sinatzen den urtean zehar.

Luzapena: ez da jasotzen.

Izenpetze eguna: 2025eko uztailaren 24a

Izenpetu duten organoak:

Alde batetik: Cristina González Calvar, Arabako Foru Aldundiko Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatua.

Bestetik: Juan Ugarte Aguirrezábal, SEA Arabako Enpresak elkarteko zuzendari nagusia.

Hitzarmenaren xedea: Arabako Foru Aldundiko Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Sailaren eta SEA Arabako Enpresak elkartearen arteko harremanak formalizatzea, bakoitzari modu osagarrian dagozkion eta bakoitzaren helburuak lortzera bideratuta dauden ekintzak optimizatzeko.

Alderdien ekarpenak eta konpromisoak: Arabako Foru Aldundiaren aldetik, SEA Arabako Enpresak elkarteari 121.554 euroko dirulaguntza ematea Arabako Foru Aldundiaren 2025eko ekitaldirako gastu aurrekontuaren kontura.

Indarraldia: izenpetu ondorengo egunetik aurrera eta izenpetzen den urteak dirauen bitartean.

Luzapena: ez da jasotzen.

Izenpetze eguna: 2025eko uztailaren 29a

Izenpetu duten organoak:

Alde batetik: Cristina González Calvar, Arabako Foru Aldundiko Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatua.

Bestetik: Gregorio Rojo García, Arabako Merkataritza eta Industria Ganbera Ofizialeko lehendakaria.

Hitzarmen xedea: Arabako Foru Aldundiaren Enplegu, Merkataritza, Turismo eta Foru Administrazioaren Sailaren eta Arabako Merkataritza eta Industria Ganbera Ofizialaren arteko harremanak formalizatzea, nazioarteko turismo sustapeneko kanpaina bat egiteko xedearekin gure lurraldera igorpen ahalmen handia duten Europako merkatuetan oinarrituta, hala nola: Frantzia, Alemania eta Italia.

Alderdien ekarpenak eta konpromisoak: Arabako Foru Aldundiak Arabako Merkataritza eta Industria Ganbera Ofizialari 60.000,00 euroko dirulaguntza ematea Arabako Foru Aldundiaren 2025eko ekitaldirako gastu aurrekontuaren kontura.

Indarraldia: izenpetu ondorengo egunetik aurrera eta izenpetzen den urteak dirauen bitartean.

Luzapena: ez da jasotzen.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko uztailaren 31

Gobernantza zuzendaria

MIREN ZABALA BASTERRECHEA